

urriak

27

osteguna



ZUBIKARAI SARIAK IPUIN RALLYA


18:00 - 18:30 @ *Kofradia Zaharra 2*

Herriko ikastetxeekin batera antolatuta, rally baten, 2 ordutan idatzitako ipuinen sariketa egin da. LHko eta DBHko 10 urtetik 16 urte bitarteko ikasleen ipuin saridunak aurkeztuko dira.



AHARITOPEKA DANTZA

Eneritz Zeberio eta Nahia Iparragirre
18:30 - 19:00 @ *Kofradia Zaharra 2*



ZUBIKARAI SARIAK NOBELA SARIA

19:00 - 19:40 @ *Kofradia Zaharra 2*

33 Ezkil, Miren Gorrotxategik idatzitako nobelaren aurkezpena, 2015eko nobela bekerari esker argitaratua. 2016ko saria: nobela proiektu bekaduna azalduko da. Xabier Mendiguren Elkarreko editoreak eta Joxemari Urteaga idazleak gidatuko dute aurkezpena.

NANOIPUIN LEHIAKETA SARIAK

19:45 - 20:15 @ *Kofradia Zaharra 2*

V. edizioko sariak banatu eta saridunek 140 karakteretan idatzitako nanoipuinak irakurriko dituzte.

urriak

28

ostirala



ARGIAREN ALABA BIZENTA MOGELEN SASOIRA TXANGOIA

Yolanda Arrieta
18:00 - 19:20 @ *Etxelila*

Euskaraz idatzi zuen lehen emakume eza-gunaren sasoiara bidaiatuko dugu gaurko nobela bat gida: «Argiaren alaba»

Ondoren, **ARGIAREN ALABA** liburuaren sormen-prozesuaz arituko gara: testuen jatorria, galderak, dudak, iradokizunak...



TESTURAK BERTSO SAIOA

Nerea Elustondo, Oihana Iguaran eta Eli Pagola. Gai-jartzaile: Maite Berrizobal.
19:30 - 20:30 @ *Etxelila*

Hainbat idazle eta sortzaileen testuak hartuko ditugu ahotan eta bertsotan; gure ezarrietatik bidea egin ondoren, zure belarrietara iritsiko direnak.

Testutik testura, zabaletik estura eta eskutik eskura jarri nahian sormenaren freskura. Testutik testura: testuak, nork bere egiten dituenean, testurak baitira.

Ondarroako Emakumeen Berdintasun Kontseilua.

urriak

29

larunbata



LIBURUEN AMUAK 12ETAN BERMUTA liburua

Jasone Osoro (Elkar)
10:00 - 12:00 @ *Liburutegia*
Liburuaren amuak irakurle taldea Joxemari Urteagarekin.

TODOS OS MARES, O MAR GALIZIERAZKO POESIA

Estevo Creus Andrade, Eduardo Estévez, Rosalía Fernández Rial eta Arsenio Iglesias Pazos idazleak.

Ant.: Galiziazaleak Elkartea
12:15 - 13:15 @ *Udal Musika Eskola*

Itsasotik itsasorako zubia. Lau poeta galiziarren ahotsak. Saioa galizieraz eta euskaraz izango da, baina euskaraz jarraitu ahalko da osorik, eta poema guztiak biltzen dituen esku-orri bana ere jasoko dute entzuleek jatorrizko eta euskarazko bertsiorekin. Galizieratik euskararainoko zubia.



ENE MAITE KUTTUN GUZTIAK POESIA ERREZITALDIA

Harkaitz Cano, Aina Gurrutxaga eta Iban Urizar.
19:00 - 19:50 @ *Kofradia Zaharra 2*

Anne Sexton, XX. mendeko poeta iparamerikarrik garrantzitsuenetakoa da. Indartsua beti eta polemikoa sarri, desesperazioari ironiaz erantzuten saiatu zen.

Aina Gurrutxaga aktoreak, Iban Urizar (Amorante) musikariak eta Harkaitz Cano idazleak azken honek itzuli dituen Sextonen poema hautatuak irakurri eta interpretatuko dituzte.

urriak

30

igandea



FREEPOR LIBURUAREN AURKEZPENA

Ander Odriozola Argoitia (Elkar)
12:00 - 13:00 @ *Kofradia Zaharra 2*

Detektibe koxkor bat da Joanes, andra-gizonen arteko kontu ziztrinekin nola hala moldatzen dena bizirik irauteko. Halako batean, ordea, Ondarroako portura argazki konprometigarri batzuk saltzera joan, eta tiro batez hilik topatzen du bere bezeroa.



MR. SEÑORA ANTEZLAN ERREZITATUA

Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Joseba Roldan eta Oier Guillan
19:00 @ *Portuko Ranpa*

Mr. Señora antzoki bateko oholtzara igo eta publikoarekin hitz egiten hasi da: begiratuak sentitzen diren gorputzei buruzko gogoeta egin du batetik, bizitzaren edozein arlotan inoiz armairutik ateratzeko pausua eman dutenei maitasun deklarazio bat eskaini die bestetik. Umorez, aldarriz, arima probokatzaillez.



ANARI KONTZERTU AKUSTIKOA

20:00 @ *Portuko Ranpa*

urriak

31


astelehena



DANTZA GUREA KONTZERTU DANTZATUA DANTZA MUSIKATUA

Idurre Azkue eta Joseba Irazoki
20:00 @ *Kofradia Zaharra*

Gorputza musikaren eta soinuaren esanetara dago, eta musika eta soinua, gorputzaren esanetara. Soinuaren bibrazioak, gorputzari nola eragiten dioten aztertzen saiatuko dira Idurre Azkue dantzaria eta Joseba Irazoki musikaria eta, aldi berean, mugimenduak berak espazioan nola egiten duen dar-dar, eta harengan zer arrasto uzten dituen. Dantzaria dantza garaikidearen klise, estereotipo eta ohiko formatatik ihes egiten saiatuko da, eta hori gertatzen den bitartean eszenatik hainbat tresna agertuko dira. Bi artistek elkar eraginez jardungo dute, mugimenduetarekin bat eginez eta tresna horiekin soinua eginez.



BIHOTZ SALATARIA ANTEZLANA

AXT teatroa
22:00 @ *Gaztetxea*

Zoroaren argudioak, psikopatearen perfekzionismoa, hiltzaile zuhurra eta zorrotza. Delitu ikaragarria, zitalena... babesbako agurea akabatzen dau, zatitu eta bere gorputziak ezkutatu. Polizia ikertzerari dator, ohiuren bat entzutean norbaitek abisua emon daualako. Hiltzaileak, bere zeregina- ren perfekzionismoaz harro, etxe barrura gonbidatu, dana ordenean dagoala erakutsi eta eureka batera jesartzen da lasai lasai solasean. Garaipena dastatzen daualarik, bere buru barruan, agurearen bihotz-taupadak entzuten hasten da, hasieran astiro astiro baina gero jasanezin bihurtuko dira. Taupada misterioitsu honek bere onetik atara eta bere delitua aitortzera eroango dabe.

azaroak

1

asteartea



GAUEKO ENTZIKLOPEDIA KOXXORRA

FAMILIA OSOAREN ZAKO IKUSKIZUNA
Sorkuntza, ekoizpena eta konponketak:
2princesesbarbudes.

Zuzendariak: Jordi Farrés, Ingrid Domingo.

Euskara egokitua: Ainhoa Aranburu.
Antzezleak: Helena Casas, Marc Marcé, Ildelfons Alonzo.

17:00 - 18:00 @ *Udal Musika Eskola*

Clown, objektuen antzerki eta ikusizko poesia ukituekin. Ametsak, mesanotxeak, asmakizunak, argitxoak, teleskopioaren bidez ikusitakoak, zapatilak, baso bat ur eta fanfarre errumaniarra baliatuko dira entziklopedia honen berri emateko.

2princesesbarbudes bikoteak jostailu-tresnekin lan egiten du, apo bizargabea lagun. Oraingo honetan, baina, hotsak areagotu eta musika konponketa batzuekin eta gure garai-ko, aspaldiko, tropiko aldeko nahiz ekialdeko erritmoekin, aberastu dute ikuskizuna.




ELKARREKIN ESNATZEKO ORDUA

PASARTE BATEN IRAKURRALDIA
Kirmen Uribe

19:00 @ *Kofradia Zaharra 2*

Euskal Herriko historia garaikidea Kirmen Uribek kontatuta. Txomin Letamendi tronpetajotzailea eta Karmele Urresti dira lan berriaren ardatza. Amaieran, esku-orri batean banatuko zaio kapitulu bertaraten den publikoari.



MURGILDU. ENTZUN. IKUSI. BIXI. GOZATU.

O N D A R R U K O L I T E R A T U R J A I A L D I X E

urriak 27-28-29-30-31
& azaroak 1 ondarroa

ANTOLATZAILEA
Ondarroako Udal Euskara Batzordea



Irudia eta maketazioa

